

## **HERNANI / Atal berria Kronikan, euskerazko liburuak gomendatzeko**

**Literatur Txokoa izena du atal berriak eta datorren igandetik aurrera izango da martxan. Udal Liburutegiak 'Alter Ero' liburuari buruzko komentarioa egingo du, hasteko. Herritar guztiei irekia da.**

Euskeraz idatzitako liburu bat irakurri berri duzu eta gainerakoei gomendatu nahiko zenieke? Kronikak horretarako bidea emango du datorren igandetik aurrera. Dobera Euskara Elkarateak eta Udal Liburutegiak elkarlanean, atal berri bat sortu dute: Literatur Txokoa. Bertan, euskeraz idatzitako liburuak gomendatzeko aukera izango da.

**«Helburua, euskeraz irakurtzea eta parte hartzea bultzatzea»**

Edozein herritarrek hartu dezake parte egitasmo honetan. Hala azaldu dute antolatzaileek: «Ez dute adituek egindako iruzkinak izan beharrik. Euskeraz idatzitako liburu bat gustatu bazaizu, gomendatzera animatzen zaitugu. Nahikoa da idaztea ze sentitu duzun, ze gustatu zaizun...». Izan ere, helburua honakoa da: «herritarrek euskeraz irakurtzea bultzatu nahi dugu eta baita parte hartzea ere», diote.

### **Hilabetean behin, Kronikan**

Literatur Txokoak hilabeteroko maiztasuna izango du. Kronikan argitaratuko da, igandez, 7garren orri honetan. Datorren igandean, hasteko, Udal Liburutegiak egingo du iruzkina. Bertol Arrietaren Alter Ero liburu gomendatuko du.

### **800 karaktere**

Iruzkinak edo gomendioak 800 karaktere inguruko idatziak izango dira eta helbide honetara bidali behar dira: [dobera@dobera.com](mailto:dobera@dobera.com). Egilearen izen-abizenak jarri behar dira.